

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1825

1004/2022 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Optikan eta Optometrian Diplomaduna kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1482/2021 Ebazpenaren bidez, Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Optikan eta Optometrian Diplomaduna kategoriaren oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAA-n argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

OPTIKAN ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA

Batzordeburua:

- Titularra: Daniel Zallo Echave.
- Ordezkoa: María Isabel Zamora Martinez.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: María de Arrate Brull Maza.
- Ordezkoa: José Antonio Zumieta Santamaría.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Eider Gutiérrez Zubizarreta.
- Ordezkoa: María Cruz Zabala Jaca.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Txomin Alberdi Ibarloza.
- Ordezkoa: Alfonso Aizpuru Martinez.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Irantzu Zabala Bilbao.
- Ordezkoa: Jon Albisu Urmeneta.

Idazkaria:

- Titularra: Javier Aguirre Arratibel.
- Ordezkoa: Arturo Ortega Salazar.